AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

958

AGINDUA, 2013ko otsailaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, sail honetan hutsik dauden bi lanpostu izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Helburua Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Ikuskaritzan ikuskari zentralaren bi lanpostu betetzea izanik, sail honek agindu honen eranskinean datozen lanpostuak izendapen aske bidez betetzeko deialdia iragartzea erabaki du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.– Parte hartu nahi dutenek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, eta bertan euren datu pertsonalak eta gaur egun duten destinoa zehaztu beharko dute. Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Lehiatzaileek, idazkiarekin batera, curriculum vitaea aurkeztu beharko dute, datu hauek jasoko dituena:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak.

c) Egindako ikasketen eta ikastaroen berri, dakizkien hizkuntzak eta izangaiaren ustez adierazgarri izan daitezkeen bestelako merituak.

Izangaiek, eskatzen diren betekizun eta aurkeztutako merezimenduei buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte eskariarekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Laugarrena.– Deialdi honen ebazpena Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduz izango da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik hasita.

Bosgarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 11.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostuak: 2.

– Izena: ikuskari zentrala.

– Lekua: Ikuskaritza Nagusia.

– Lantokia: Vitoria-Gasteiz.

– Titulazio-taldea: A taldea.

– Kidegoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskatzaileak.

– Berariazko osagarria: 7.151,77 euro.

– Hizkuntza-eskakizuna: 2.a, gainditutako derrigortasun-datarekin.

Betetzeko baldintzak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko karrerako funtzionarioa izatea, eta lantokia Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko kudeaketa-arloan izatea.

– Zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan jardutea edo, seme-alabak edo senideak zaintzeko, eszedentzia-egoeran egotea.

– Halaber, ondorengo egoeretan dauden lehen aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, zerbitzu aktibora itzuliz edo prozedura honen bidez: derrigorrezko eszedentzian, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuak.